





**amma**



## BEMER

Mikrozirkulazioa aktibatzen duen terapia fisiko baskularra da, eta zelula guztien errendimendua hobetzen du; horrela, mina arintzen da, eta gorputzak berak sendatzeko eta birsortzeko duen ahalmena sustatzen da.

Estresak, lo-faltak, elikadura txarrak, ohitura ez oso osasungarriek, gaixotasunek eta, jakina, adinak odol-hodi txikien ponpaketa-mugimendua moteltzen dute. Ondorioz, odol-zelulak askoz ere polikiago mugitzen dira, eta ezin dute beren eginkizuna ondo bete. Bemer teknikak odol-hodi txikien ponpaketa-mugimendua suspertzen du, elektromagnetikoki transmititutako estimulazio-seinaleen bidez. Horrela, mikrozirkulazioaren eremuan, odol-fluxua berriro normalizatzen da, eta gorputzeko zelulak hobeto hornitzen dira, behar bezala jarduteko.



## **ONURAK**

- ♦ Organoetako eta ehunetako odol-fluxua hobetzen du, eta, beraz, organoen eta ehunen birsortze-ahalmena areagotzen da.
- ♦ Sistema immunitarioa indartzen du.
- ♦ Mina murrizten du.
- ♦ Energia fisiko eta mentalaren errendimendua eta tonifikazioa areagotzen ditu.
- ♦ Gaixotasunek hobera egiten dute.
- ♦ Zaurien zikatrizazioa eta kirol-lesioen sendatze-prozesua azkartzen ditu.
- ♦ Kirol-entrenamenduetan, lehengoratzeko eta suspertzeko denborak murrizten ditu.

## **TRATAMENDUAK**

- ♦ Zauriak sendatu/orbaintzeko arazo kronikoak.
- ♦ Aparatu muskulueskeletikoaren gaixotasun kroniko degeneratiboak.
- ♦ Arazo metaboliko kronikoak (adibidez, diabetesa).
- ♦ Gutxiegitasun organikoa (disfuntzio hepatikoa, disfuntzio organiko anizkoitza...).
- ♦ Diabetesak edo minbizirako tratamenduek eragindako polineuripatiak.
- ♦ Gaixotasun oklusibo arterial periferikoak.
- ♦ Neke kronikoa (estres kronikoa, esklerosi anizkoitza...).
- ♦ Min akutuak eta kronikoak.
- ♦ Bizi-kalitatea mugatzen duten minak.



**amma**

## **KONTAKTUA**

943 457 800

[info@amma.es](mailto:info@amma.es)

[www.amma.es](http://www.amma.es)